



## **Hiztegitxo**

**Hobeto irakurtzen laguntzeko**



|   |   |     |
|---|---|-----|
| <b>adetasun</b><br>kortesia, jendetasuna                | Etxera itzuli eta hilabete batera amaitu ziren lore sortak, opariak, <b>adetasun</b> seinaleak.   | 100 |
| <b>adore eman</b><br>animoa eman                        | «Badaezpadako materiala biltzen ari zara», <b>adorea eman</b> nion neure buruari, noraezean nembilelako sentsazioa izoztu guran...                                  | 20  |
| <b>ahitu</b><br>nekatu, indar gabe geratu               | <b>Ahitzen</b> ari zen, burua hormaren kontra jotzera zihoan...   | 96  |
| <b>aitortza</b><br>aitorpena                            | ...ustezko biktimaren <b>aitortzaz</b> harago beste lekukotzarik ez genuelako.  | 64  |
| <b>akabuko</b><br>azken-azkena                          | Kareletik hur dago atuna —esan dit Sofiaren ahizpak gaurko saioa amaitu ostean—. Bihar azken kolpea, <b>akabukoa</b> .  | 134 |
| <b>akordura etorri</b><br>gogoratu, burura etorri       | Kafe bero eskuan, <b>akordura</b> etorri zitzaidan hilabete lehenenago idatzi nuen artikulua.   | 9   |
| <b>aldiri</b><br>eskualdea, hiriburu ondo               | atoan baztertu nuen ideia bururatu berria: astakeria zen aseguru etxeak <b>aldiriko</b> herrietan bulegorik zuen bilatzen hastea.                                   | 16  |
| <b>amaraun</b><br>armiarma-sarea, korapiloa             | Sofia ezetzen eta baietzen <b>amaraunean</b> lotu zen.  | 113 |
| <b>amarruz</b><br>maltzurkeriaz, engainuz               | Desiozkoak ere izaten ditut ametsok, berarekin itzultzea amesten dut: itzultzen naiz, <b>amarruz</b> biltzen nau, eta gero berak uzten nau, eta barre egiten dit... | 134 |
| <b>anabasa</b><br>nahaspila, nahastea                   | Baina ziur aski <b>anabasa</b> hartan lurrera erori eta... Gajoa, eta nik lapurtzat hartu...  | 13  |
| <b>anbibalentzia</b><br>sentimendu kontrajarria + -     | Posesibotasunaz mintzatu zen ondoren:<br>—Pertsona horiek <b>anbibalentziaren</b> mende daude.  | 69  |
| <b>anda</b><br>ohatila, esku-ohea                       | <b>Andaren</b> ondoko mahai zurian kristal ñimiñoek beteriko azpila, odol zipriztinez gorrituriko zilar kolorea.  | 124 |
| <b>antzu</b><br>balio gabea, hutsala                    | Kamioiek utzitako lokatz arrastoa saihesteko ahalegin <b>antzu</b> an kalean zeharkatu nuen, aurreko espaloiko kafetegira...  | 18  |
| <b>arakatu</b><br>miatu, ikertu                         | Erredakziora joan eta seien izenak <b>arakatu</b> nituen Googlen.   | 26  |
| <b>arbola biluzi</b><br>hosto gabea                     | ...andrea guregandik urrundu zen, aparkalekuaren ondoko ibiltokian beherantz, albo bietan landatutako arbola <b>biluzien</b> artean, kantari.                       | 59  |
| <b>arestian</b><br>lehentxeago, duela gutxi             | Horrenbestez, <b>arestian</b> esan dudan legez, profesional baten laguntza behar zutela adierazi nien...  | 65  |
| <b>argigarri</b><br>argitzailea, esplikatzailea         | ...baina berehala murgildu ziren testuaren <b>argigarri</b> izan behar zuten irudietan.   | 14  |
| <b>arrakalatu</b><br>pitzatu, zartatu                   | Ni nintzen objektu hura erabat <b>arrakalatu</b> z gero, bestearen bat bilatuko zuten, minik gabe, penarik gabe.  | 54  |
| <b>arrandia</b><br>handikeriazkoa, harrokeria           | <b>Arrandiaren</b> ederrean ia itota, notaritza iragartzen zuen xafla dirdaira iritsi nintzen.  | 27  |
| <b>artatu</b><br>zaindu, atenditu                       | Aurpegia zauritua zeukan emakume bati buruz hitz egiten hasi zitzaidan, gau hartan <b>artatu</b> zuten bati buruz.  | 8   |
| <b>artega</b><br>urduri, larrituta                      | <b>Artegaturik</b> ikusi nituen aurreko hiru hilabeteetan sarea osatzen ederto ibilitako lagunak...   | 133 |
| <b>artez begiratu</b><br>aurpegi-aurpegira, zuzen-zuzen | Emakumeak burua altxatu eta <b>artez begiratu</b> zion.   | 11  |
| <b>astakeria</b><br>bortizkeria                         | <b>Astakeriaren</b> lekuko izandako norbaitek grabatu zuen.   | 15  |
| <b>astrapala</b><br>zalaparta, zaratotsa                | Eguedrian hasi ziren telefonoak <b>astrapala</b> batean.  | 130 |
| <b>atoan</b><br>berahalaxe, arin batean                 | Metropoliaren planoari begiratu eta <b>atoan</b> baztertu nahi nuen ideia bururatu berria   | 17  |



|   |  |     |
|---|--|-----|
| <b>atril</b><br>orriak kokatzeko tresnatxoa       | Sarrera ordenagailu azpian utzi eta lanari lotzen saiatu nintzen, <b>atrilean</b> nuen orrira begiak eramaten...   | 32  |
| <b>auzipetu</b><br>epaitu, auzitara eraman        | ...ez zela oso erraza izango ustezko erasotzailea <b>auzipetzea</b> eta biktimari laguntzea.   | 65  |
| <b>azpil</b><br>erretilua, bandeja                | Platerak-eta <b>azpilean</b> jarrita, langelara joan nintzen...  | 21  |
| <b>badaezpadako</b><br>kontuz ibiltzekoa          | « <b>Badaezpadako</b> materiala biltzen ari zara», adorea eman nion neure buruari, noraezean nembilelako sentrazioa izoztu guran...                              | 20  |
| <b>baoare handia</b><br>zein irekidura zabala     | Erdi-puntuko <b>baoare handia</b> miretsi nuen atarian.  | 27  |
| <b>baranda</b><br>babes xafla / eskudela          | Metro batzuk aurrerago errepide ertzeko <b>baranda</b> hondaturik zegoen, ibilgailu batek haren kontra jo eta metro batzuetan harramazkatu osteko zikin iluna... | 121 |
| <b>bart</b><br>aurreko gaua ( <i>anoche</i> )     | <b>Bart</b> pinu basoa aukeratu dute lo egiteko, pentsatu nuen tantek kaleko zolaren aurka sortutako hotsa ohetik entzutean.                                     | 39  |
| <b>basaki</b><br>zakarki, indarka                 | Hurrena besoetatik <b>basaki</b> tira eta herrestan eraman zuen espaloira, emakumeak hankak errepideko asfaltoan iltzatzeko indarra alferrik eginez.             | 14  |
| <b>begitandu</b><br>iruditu                       | Idea ona <b>begitandu</b> zitzaidan bikote bion arteko afaria; notarioaren semeak ere ondo hartu zuen, edo hala begitandu zitzaidan orduan.                      | 57  |
| <b>behaxulo</b><br>ikusteko zulotxoa              | Zerua ia osorik estaltzen duten hodei formagabeetan bere tamainako <b>behaxulo</b> bat egiten jakin duela.   | 7   |
| <b>bekain</b><br>bepurua ( <i>ceja</i> )          | Disimulurik gabe erreparatu nion, eskuinaldeko <b>bekainean</b> eta kokots azpian zauriren bat aurkitzeko...   | 12  |
| <b>belu</b><br>berandu, atzerapenez               | Behin, barbarako, Sofia <b>belu</b> iritsi eta azalpenak eskatu zizkion, ea zergatik iristen zen belu, ea inork kotxez eroan zuen haraino, ea...                 | 48  |
| <b>berba</b><br>hitza, elea                       | Sofia lasaitzearren ontzat eman nituen haren <b>berbak</b> .   | 57  |
| <b>berbarako</b><br>kasurako, adibidez            | Behin, <b>berbarako</b> , Sofia belu iritsi eta azalpenak eskatu zizkion, ea zergatik iristen zen belu, ea inork kotxez eroan zuen haraino, ea...                | 48  |
| <b>berbaro</b><br>hitz-hotsa                      | Urrun entzun nuen ondoko <b>berbaro</b> isil ezinezkoa.  | 120 |
| <b>berrogeitaka</b><br>berrogei eta gehiago       | Bezero bakarra zegoen, andre bat <b>berrogeitaka</b> urtekoa.  | 19  |
| <b>bertatik bertara</b><br>brehala, hurbil-hurbil | <b>Bertatik bertara</b> agertu zitzaidan neskalgunaren Cooper horia: zeharo txikitua aurreko aldea, kristal osoa barrurantz sartua...                            | 122 |
| <b>betazal</b><br>begiak estaltzen dituen azala   | Aurpegi zikineko astroari begiratzen nion, eta ondoren amari, nire <b>betazalak</b> gero eta pisutsuago.   | 7   |
| <b>betazpiko</b><br>begipea, begien azpialdea     | ...betaurreko beltz handiek ezin ezkuta zezaketen <b>betazpikoen</b> gorria.   | 36  |
| <b>bezero</b><br>eroslea, klientea                | <b>Bezero</b> bakarra zegoen, andre bat berrogeitaka urtekoa.  | 19  |
| <b>beztitu</b><br>hornitu, osatu                  | Mugimenduz <b>beztitzen</b> zituen jardunak: mahaia ukabilez jo, kopeta zimurtu, ezer begien bistakoa iruditzen zitzaionean besoak eta eskuak luze zabaldu.      | 9   |
| <b>biak ala biak</b><br>biak ere ( <i>ambos</i> ) | Nolanahi den, ezin nahas nintekeen: [...] garaile izateko behar den autoa eta irudi bortitzez betetako bideokoa, <b>biak ala biak</b> , Montero Sport ziren.     | 23  |
| <b>bidezidor</b><br>bidexka, irtenbidea           | ...informazio gehiago lortzeko <b>bidezidorren</b> bat bilatu...   | 86  |
| <b>bidezidor</b><br>bidexka, lasterbidea          | Elkarrizketa luzatu nahi izan nuen, informazio gehiago lortzeko <b>bidezidorren</b> bat bilatu.  | 86  |
| <b>bidezko</b><br>egin beharrekoa, legitimoa      | Salaketa egin beharko nuela pentsatu nuen une batez, hura zela <b>bidezkoena</b> , erasoari eman beharreko erantzuna.  | 74  |



|   |   |     |
|---|---|-----|
| <b>biharamun</b><br>hurrengo eguna                            | Ez nintzen harritu <b>biharamunean</b> sukaldeko mahai gainean ospitaleko gutun azal zuri bat aurkitu nuenean.  | 8   |
| <b>bits</b><br>aparra, haguna                                 | Olatuek hormen kontra jotzean sortzen zuten <b>bitsa</b> zikin zegoela iruditu zitzaidan...   | 61  |
| <b>bortxa</b><br>bortizkeria, biolentzia                      | Neure kabutan etengabe egiten ditudan itaunak dira: zergatik nire ahizparen aurkako <b>bortxa</b> ?, zergatik nire aurkako herra?                                   | 60  |
| <b>desio</b><br>irritsa, sexu grina                           | <b>Desiozkoak</b> ere izaten ditut ametsok, berarekin itzultzea amesten dut: itzultzen naiz, amarruz biltzen nau, eta gero berak uzten nau, eta barre egiten dit... | 134 |
| <b>difamatu</b><br>iraindu                                    | Gauza handia da <b>difamatzea</b> , inoren aurka gaizki esaka ibiltzea.   | 132 |
| <b>dikotomia</b><br>zatiketa                                  | Trago bat ardo hartu nuen, biktima eta erasotzaile hitzetan begiak aldi berean jarrita, <b>dikotomia</b> hartan sakondu nahian...                                   | 21  |
| <b>dikotomia</b><br>kontzeptu osagarriak                      | ... <i>biktima</i> eta <i>erasotzaile</i> hitzetan begiak aldi berean jarrita, <b>dikotomia</b> hartan sakondu nahian, bi hitzetan, eta ez irudietan...             | 21  |
| <b>dirdai</b><br>distiratsua                                  | Arrandiaren ederrean ia itota, notaritza iragartzen zuen xafla <b>dirdaira</b> iritsi nintzen.  | 27  |
| <b>doi-doi</b><br>nekez, ozta-ozta                            | <b>Doi-doi</b> ikusi zitezkeen arkupeak autoaren atzean   | 15  |
| <b>dorpe</b><br>trauskila, baldarra                           | Zelan izan nintekeen hain <b>dorpea</b> !   | 16  |
| <b>durundi</b><br>hots ozena, oihartzuna                      | Irudi guztiak hautsi zituen sirenaren <b>durundiak</b> .  | 122 |
| <b>ebatzi</b><br>erabakitakoa                                 | ...eta azkenean, erantzunari jaramonik egin gabe, bere kabuz <b>ebatzitakoari</b> lotzen zitzaion.  | 8   |
| <b>egiten duzuna gorabehera</b><br>berdin du zer egiten duzun | ...“eta ez pentsatuz zer egin behar duzun eta zer ez [...] gizon horren suminaldi bakoitzean, zeren zuk <b>egiten duzuna gorabehera</b> , hirak izan izango dira”.  | 38  |
| <b>egoeraren gordina</b><br>zein egoera latza                 | Neskalagunak idatzitako oharrek egoeraren <b>gordina</b> deskribatu zidaten lerro okerretan...  | 10  |
| <b>eguen</b><br>osteguna (bizk.)                              | Nobioa zuela esanez deitu zion amari. <b>Eguen</b> batean izan zen.   | 29  |
| <b>ei</b><br>omen   | Kontsultatik irten eta ernegatu <b>ei</b> zen gizona.   | 78  |
| <b>eklektiko</b><br>estilo desberdinak dituen                 | ...hogeit bat metro lehenago dagoen eraikin <b>eklektikora</b> hurreratu nintzen.   | 26  |
| <b>enparauak</b><br>gainerakoak, besteak                      | ‘Bananduko gara, ez naiz zurekin irtengo’ eta <b>enparauek</b> egoera hartara eroan behar zutela.   | 49  |
| <b>epaia</b><br>sententzia                                    | Baina ezin, bihar <b>epaia</b> emango dutela jakiteak artegatu bainau, eta loa uxatu.   | 7   |
| <b>ergelkeria</b><br>lelokeria, papaukeria                    | Eskatu egidak beste zerbait, baina <b>ergelkeria</b> hori ez!   | 24  |
| <b>ernegatu</b><br>gogaitu, nazkatu                           | Kontsultatik irten eta <b>ernegatu</b> ei zen gizona.   | 78  |
| <b>erpuru</b><br>atzamar edo hatz lodia                       | Ez zuen ezer esan, garaipen keinua egin zidan eskumako <b>erpuruaz</b> eta artikuluari lotu zizkion begiak.   | 63  |
| <b>errai</b><br>tripa, barnea                                 | Jendearen sentipena nabarmentzea nahi dut; datuetatik alde egin eta pertsonen <b>erraietan</b> bilatzea nahi dut.   | 62  |
| <b>errain</b><br>semearen emaztea                             | ...nagusia <b>erraina</b> izateak zelanbaiteko mesfidantza sortu zuen haien artean...   | 56  |
| <b>erregutu</b><br>mesedeka eskatu                            | —Notarioarekin egon behar dut, gai pribatu baterako — <b>erregutu</b> nion, lagunak egindako txartela emateaz batera.   | 27  |



|   |   |     |
|---|---|-----|
| <b>erremina</b><br>erredura                       | Masailera eraman nuen ahurra eta <b>erremina</b> sentitu nuen ukabilkada hartutako aldean.  | 74  |
| <b>errepesa</b>                                   | Badakit jakin bihar bestela ikus dezakedala dena, [...] bihar azken ur tragoa hartuta nabari dezakedala ahoko <b>errepesa</b> garbitua dela...                | 133 |
| <b>errezel</b><br>gortina                         | Apurka, zutundu gabe, <b>errezel</b> azpitik altxa eta hormara hurbildu nintzen.  | 104 |
| <b>erruz</b><br>gogoz, asko, ugari                | <b>Erruz</b> egin du euria gualdean...  | 71  |
| <b>esatari</b><br>lokutorea                       | ...esan zuen irratiko <b>esatariak</b> goizeko albistegian.   | 71  |
| <b>esku artean erabili</b><br>lantzen ari dena    | Esku artean <b>nerabilen</b> artikulua mintzatu zitzaidan...  | 8   |
| <b>estira</b><br>tortura, tormentua, suplizioa    | ...tolestarazi eta itolarria sentitzera eraman ninduen, barrabiletako <b>estirarekin</b> .  | 72  |
| <b>huri zirin</b><br>zirimiria, lanbroa           | Sofiaren ahizparekin lehen aldiz elkartu nintzen labarretan libre, <b>huri zirinaren</b> azpian libre; horrela sentitu ginen asteburu hartan: garaile.        | 130 |
| <b>ezkaratz</b><br>ataria, sarrera                | <b>Ezkaratzeko</b> aulki baten euskarritik zintzilikatu zuen poltsa.  | 40  |
| <b>ferekatu</b><br>laztandu, leunki ukitu         | Bibotea apaintzen ari zen sartu nintzenean, ile bakoitza eta denak batera <b>ferekatzen</b> .   | 62  |
| <b>forja</b><br>burdinazko egitura                | Eta bai: goibel ikusi nuen zerua leioa babesten zuten <b>forja</b> beltzez harago, garbigailua amatatzera joan nintzenean.                                    | 71  |
| <b>gajo</b><br>gaixoa, koitadua                   | Ez zara mugatu herrixkara hurbiltzera, <b>gajo</b> hari buruzko datuak bildu, libretan zirriboratu eta gatzik gabeko artikulua egitera.                       | 9   |
| <b>galga</b><br>balazta                           | Autoak azeleratu eta bultzaka segitu du, nirea arrastaka eramaten. Uste dut <b>galga</b> zapaldu dudala birritan, baina atzeko autoak indar gehiegi zekarren. | 124 |
| <b>gatibatu</b><br>harrapatua, interesatua, preso | Biktimaren minak <b>gatibatua</b> nintzela pentsatu nuen.   | 21  |
| <b>gomutatu</b><br>burura etorri                  | ...begiak indartsuago itxi ditudanean <b>gomutatu</b> zait, mahai gaineko telefonoak gauaren isila eten eta neskalagunaren berba nekatuak...                  | 8   |
| <b>gotorleku</b><br>fortea                        | Itsasaldera iritzita, herrian sartu eta behinolako <b>gotorlekurako</b> errepidea hartu genuen.   | 55  |
| <b>grina</b><br>pasioa, irrika                    | Galdu da benetako kazetaritzarako <b>grina</b> .  | 9   |
| <b>groggy</b><br>jota, zurtuta, durduzatuta       | ...bi auto susmagarri aukeratu nituen, eta bietan <b>groggy</b> amaitu nuen.  | 44  |
| <b>gurpil plater</b><br>tapacubosa                | Barrutik auto ezin ederrago batzuek dei egiten dizute, haien tapiz garbia, haien <b>gurpil plater</b> distiratsuak...   | 25  |
| <b>halla</b><br>atondoa                           | Txiki sentitu nintzen atez beste aldean. <b>Halla</b> , handia zen oso.   | 27  |
| <b>hanpatu</b><br>puztua, arranditsua             | Notarioaren eta bazkideen izen-abizen <b>hanpatuen</b> azpian goizeko ordutegia: 10:00etatik 13:30etara.  | 27  |
| <b>harlauza</b><br>baldosa                        | Jendea atzera eta aurrera zebilen aterkien azpian, <b>harlauza</b> apurtuetan sorturiko putzuak saihesteko sigi-saga zorabiagarri batean.                     | 35  |
| <b>hatz</b><br>atzamarra, eria                    | Orriko irudiaren eskuma seinالاتu zuen hurrena, letra lodiz idatzita zegoen hitza <b>hatz</b> azpimarratuz.   | 69  |
| <b>helikoidal</b><br>helize formakoa              | Burdinazko ate landua zeharkatu orduko eskailera <b>helikoidalaren</b> ederrak erakarrita...  | 27  |
| <b>herra</b><br>gorrotoa, ikusezina, hegigoa      | ...zergatik nire ahizparen aurkako bortxa?, zergatik nire aurkako <b>herra</b> ?  | 60  |



|  |   |     |
|--|---|-----|
| <b>hira</b><br>kolera, haserrealdi itsua                     | ...“eta ez pentsatuz zer egin behar duzun eta zer ez [...] gizon horren suminaldi bakoitzean, zeren zuk egiten duzuna gorabehera, <b>hirak</b> izan izango dira”. | 38  |
| <b>hitzordu</b><br>zita                                      | Zuk aipatutako emakumea agertzen bada, deituko dizut eta, gura baduzu, beste <b>hitzordu</b> bat jarriko dugu.  | 70  |
| <b>hur</b><br>hurbil, gertu                                  | Kareletik <b>hur</b> dago atuna —esan dit Sofiaren ahizpak gaurko saioa amaitu ostean—. Bihar azken kolpea, akabukoa.   | 134 |
| <b>huts</b><br>akatsa, errakuntza                            | Sarritan agertzen zen, aitari dirua eskatzera, kotxea eskatzera, egindako <b>hutsak</b> zirela-eta...   | 47  |
| <b>ile urdinu</b><br>zuri jarria ( <i>canoso</i> )           | Motots batean bildurik zeukan <b>ile</b> erabat <b>urduindua</b> .  | 55  |
| <b>ilea lastu</b><br>zirrara eragin, inpresionatu            | Neskalagunaren telefonoan grabatutako ahots bera entzuteak <b>ilea lastu</b> zidan.   | 111 |
| <b>imintzio</b><br>keinua                                    | Andreak sorpresako <b>imintziora</b> egin zuen, nire hitzak ulertu ez balitu bezala.  | 43  |
| <b>inposta</b><br>zutabea eta arku lotzeko gunea             | ...miretsi nuen atarian: arkuaren barruan ere kristalezko bao bat; azpian, <b>inposta</b> eta hari heltzeko marmolezko bi zutabe monolitiko.                      | 27  |
| <b>inprenta letra</b><br>makina idatzia                      | <b>Inprenta letren</b> ordez, berak idazten zituen izenak, kolorez edo forma desberdinez.   | 47  |
| <b>iradoki</b><br>sujeritu, erdi esan                        | Gai pribatua zela eta onena bere bulegoan hitz egitea zela <b>iradoki</b> nion.   | 25  |
| <b>iragarle</b><br>anuntzioa                                 | Haren azken hitzak, gerora bizi behar nuenaren <b>iragarle</b> .  | 61  |
| <b>iratzarri</b><br>esnatu, itzartu                          | Ezaguna egin zitzaidan, oroimenean lokartutako zentzua <b>iratzarri</b> zidan letra ulergaitzak.  | 115 |
| <b>irendu</b><br>zikiratu, barrabilak kendu                  | ...seme kantaria <b>irentzeko</b> komenentzia iradoki ziotenean, orduko ahots altu eta zolia betiko gorde zezan, aitak izan ei zuen haserreaz oroitu nintzen.     | 44  |
| <b>irmo</b><br>tinko, gogor                                  | ...minak makurtzera behartu eta atzean kokatutako mozorroduak <b>irmo</b> eutsi ninduenean.   | 72  |
| <b>irri</b><br>adeitasunezko barretxea                       | ...ate ondoan zegoen emakumea, zain, esker oneko <b>irria</b> aurpegian.  | 12  |
| <b>iseka</b><br>burlaka                                      | Notarioaren semea <b>isekaka</b> ibili zitzaion afari osoan, hura gutxiesten etengabe, nirekiko konparazioak egiten.  | 57  |
| <b>itaun</b><br>galdera                                      | Halako <b>itaunak</b> egiten zizkion beti; eta Sofiak zelanbaiteko azalpenak eman behar.  | 49  |
| <b>itzulinguruka ibili</b><br>errebuiltaka, harira joan gabe | Maite nuen <b>itzulinguruka ibili</b> gabe gauzei heltzeko erraztasun ezin ezkutatzeke hura.  | 82  |
| <b>jagon</b><br>zaindu                                       | Barneratu egin du errua: jotzen badu merezi duelako da, hura <b>jagoten</b> jakin ez duelako.   | 100 |
| <b>janba</b><br>ate-leihoen zurezko ertza                    | Atearen <b>janba</b> zurian oinarrituta zegoen, isilik, markoari indarrez helduta.  | 105 |
| <b>jaramon egin</b><br>kasu egin, kontuan hartu              | ...eta azkenean, erantzunari <b>jaramonik egin</b> gabe, bere kabuz ebatzitakoari lotzen zitzaion.  | 8   |
| <b>jardule</b><br>agentea, eragilea                          | Nork mugitzen ditu sokak? Nork idatzi du antzezlanak? Nor da zuzendaria, nor <b>jardulea</b> ?  | 118 |
| <b>jazoera</b><br>gertakaria                                 | Bihotza erdibitu zigun <b>jazoerok</b> kontatzean.  | 81  |
| <b>jeloskortasun</b><br>zelo, mesfidantza                    | ...harremana ezin oinarri daiteke bakartzean, posesibotasunean, oihuetan, etengabeko eztabaidetan, arrazoirik gabeko <b>jeloskortasunean</b> ...                  | 69  |
| <b>jipoi</b><br>astinaldia, paliza                           | <b>Jipoia</b> gertatu zen lekua ezin da oso urrun egon, pentsatu nuen.  | 17  |



|   |   |     |
|---|---|-----|
| <b>jorratu</b><br>landu, elaboratu                | Garaia zen lortutako datu guztiak <b>jorratu</b> , garbitu eta zuzendariak eskatutako lana behar legez apaintzeko.  | 93  |
| <b>kaiera</b><br>koadernoa                        | Teklatua alde batera mugitu eta <b>kaiera</b> hartu nuen. Taula bat prestatzen hasi nintzen, erredakzioaren gidari izango zen jarraibidea.                          | 110 |
| <b>kakaztu</b><br>hondatu, kaka artera bota       | Zureganako neuzkan konfiantza eta mirespena <b>kakaztu</b> dituzu.  | 103 |
| <b>kaoba</b><br>zur beltza, preziatua             | Ardatz nagusiaren buruan <b>kaobazko</b> mahai ilun bat zegoen.   | 27  |
| <b>karel</b><br>itsasontzien goiko ertza          | <b>Kareletik</b> hur dago atuna —esan dit Sofiaren ahizpak gaurko saioa amaitu ostean—. Bihar azken kolpea, akabukoa.   | 134 |
| <b>kari</b><br>kausa, motiboa                     | Garai hartan lantzen ari nintzen artikulua gaiarekin lotu behar ziren irudiok, artikulua <b>karira</b> bidali baitzizkidaten.                                       | 22  |
| <b>kartazal</b><br>gutun-azala ( <i>sobre</i> )   | Bi aste geroago <b>kartazal</b> bat iritsi zen bulegora.  | 13  |
| <b>kemenik gabe</b><br>adorerik gabe, indarge     | ...hitok bibotearen ileetan <b>kemenik gabe</b> trabatzearen beldur balitz bezala.  | 9   |
| <b>kirten</b><br>heldulekua ( <i>manilla</i> )    | Atearen <b>kirtenetik</b> kanporantz tiratu, atea ondo itxita zegoela ziurtatu eta ahots mehe batekin esan zidan...   | 28  |
| <b>kizkur</b><br>kiribildua                       | Txokolatzeko marra <b>kizkurdun</b> batez apainduak.  | 83  |
| <b>klaska</b><br>aho zaratatxoa                   | <b>Klaska</b> bitxi bat atera zuen fruitua ahoan sartzean, kraskatu aurretik zupatu egingo balitu bezala.   | 31  |
| <b>kokots</b><br>bidarra, aurpegi beheko irtengun | Disimulurik gabe erreparatu nion, eskuinaldeko bekainean eta <b>kokots</b> azpian zauriren bat aurkitzeko...  | 12  |
| <b>kopeta</b><br>bekokia                          | Mugimenduekin beztitzen zituen jardunak: mahaia ukabilez jo, <b>kopeta</b> zimurtu, zerbait begien bistakoa iruditzen zitzaionean besoak...                         | 9   |
| <b>kriptiko</b><br>enigmatikoa, ulertzeko zaila   | Ez nuen ulertu zein izan zitekeen igorlearen asmoa mezu <b>kriptiko</b> hura bidaltzean.  | 14  |
| <b>kuiatxo</b><br>kalabazina                      | ...senarrak sarri esaten ziola txarto egiten zuela, txarto mozten zuela kipula, eta tomateak, eta <b>kuiatxoak</b> ... Sutan jarri nintzen.                         | 95  |
| <b>laga</b><br>utzi                               | Altxatu eta alde egin gura izan zuen. Ez nion <b>laga</b> . Sofan jesartzera behartu nuen.  | 37  |
| <b>laido</b><br>ofentsa ( <i>ultraje</i> )        | Gauza handia da difamatzea [...] Frogatu behar izaten du, eta ez da beti erraza izaten. Horregatik <b>laido</b> eta irain horiek ukatu nituen epailearen aurrean... | 132 |
| <b>lakar</b><br>latza                             | Lagata neukan tabakoari heldu nion berriro, hatzen artean dantzan, ahoan bero, eztarrian <b>lakar</b> , biriketetan pozoi.  | 131 |
| <b>lanbrotu</b><br>lausotu, difuminatu            | Bata zein besteari esker oneko irria erakutsi nahi izaten nien, baina ezin, keinua <b>lanbrotzen</b> baitzidan loak.  | 7   |
| <b>larderia</b><br>mehatxua, intimidazioa         | Txostenean adierazi genuenez, behin eta berriz gertatzen diren umiliazio, gutxiespen, irain, <b>larderia</b> eta abar hartzen da tratatu txar psikologikotzat...    | 64  |
| <b>lazarri</b><br>ikaragarria, itzela             | <b>Lazarriak</b> ziren burua eta aurpegia besoekin babesteko ahaleginak, baina gizonaren etengabeko kolpeek ezinezkoa bihurtzen zuten defentsarako aukera.          | 14  |
| <b>likatsu</b><br>itsaskorra, lirdingatsua        | Deseroso sentitzen hasi nintzen, eskuetako izerdia atzamarren artean <b>likatsu</b> egiten zitzaidala.  | 9   |
| <b>lipar</b><br>unea, eretia, momentua            | <b>Lipar</b> bat soilik ez zen izan, burua berriz makurtu eta lehenengoari eutsi aurretik.  | 11  |
| <b>lizunkeria</b><br>indezentzia, gauza lohia     | Ez dizue bakerik emango —malko saminak etorri zitzaizkion begietara, dardara egin zion ahotsak—. Irainak, <b>lizunkeriak</b> , mehatxuak...                         | 100 |
| <b>lokarrarazi</b><br>lo eragin, blokeatu         | Horregatik erabiltzen dituzte erakundeek: informazioa ematen dutela sinetsarazten digute, baina jendearen erreakzioa <b>lokarrarazten</b> dute.                     | 63  |



|   |   |     |
|---|---|-----|
| <b>loki</b><br>buruaren belarri aurreko gunea             | Sudurreko hezuraren gainean zuen orban odol lehorrez nabarmenduari erreparatu nion, eta ezker aldeko <b>lokiko</b> urradura desagertzen hasiari.                | 56  |
| <b>lotu</b><br>geratu, hitzordua adostu                   | Aste hartako barikurako <b>lotu</b> ginen.  | 57  |
| <b>mailatu</b><br>kolpe marka ( <i>bollo</i> )            | Bertatik bertara agertu zitzaidan neskalagunaren Cooper horia: zeharo txikitua aurreko aldea, kristal osoa barrurantz sartua, eskumako albo <b>mailaturik</b> . | 122 |
| <b>mailatune</b><br>ubeldura, kontusioa                   | Pazienteak ondoko zauriak ditu: ebaki sakon bat eskuinaldeko bekainean, zenbat <b>mailatune</b> aurpegiaren eskuinaldean...                                     | 10  |
| <b>malapartatu</b><br>madarikatua, gaitzesgarria          | ...atea zabaltzeaz nengoela, kanpotik ireki eta egun <b>malapartatu</b> hartan txartela eman nion andrea sartu zen barrura.                                     | 55  |
| <b>matxura</b><br>aberia                                  | Kolapsaturik daude errepide gehienak: istripuak, <b>matxurak</b> ...  | 119 |
| <b>mesfidantza</b><br>errezeloa, susmo txarra             | Baina psikologoarekiko nolabaiteko <b>mesfidantza</b> sentitzen hasi zen, hark ez baitzion sinesten.  | 95  |
| <b>mintzatu</b><br>hitz egin, berba egin                  | Esku artean nerabilen artikulua <b>mintzatu</b> zitzaidan, tratu txarren gainean idatzi behar nuen lanaz.   | 8   |
| <b>mirespen</b><br>lilura, admirazioa                     | Zureganako neuzkan konfiantza eta <b>mirespena</b> kakaztu dituzu.  | 103 |
| <b>miretsi</b><br>harridura sentitu ( <i>admirar</i> )    | Erdi-puntuko baoaren handia <b>miretsi</b> nuen atarian...  | 27  |
| <b>modulatu</b><br>tonu egokikoa                          | Banan-banan seinalatuz bakoitzaren deskribapen txikia egin zidan ahots ezin <b>modulatuagoz</b> .   | 68  |
| <b>motots</b><br>ile multzo bildua ( <i>moño</i> )        | <b>Motots</b> batean bildurik zeukan ile erabat urdindua.   | 55  |
| <b>mugurdi</b><br>masusta gorria ( <i>frambuesa</i> )     | ...erabakia hartuta heldu ginela jatetxera, nork berea, eta bigarren platera apaintzen zuen <b>mugurdiak</b> nola, halako funtzioa betetzen zuela...            | 83  |
| <b>nabarra</b><br>kolore askokoa ( <i>multicolor</i> )    | ...lektetik desplazatuta zegoen sehaska, hautsia burkoaren gaineko irudi mugikorra, lurtean umearen hartz <b>nabarra</b> .                                      | 102 |
| <b>nasa</b><br>kaia, andena                               | Ibai ertzeko <b>nasa</b> zaharrea behera joan nintzen, uraren zikinak ordura arteko kezka beste alde batera eramaten zidala nabaritzen...                       | 86  |
| <b>nolanahi den</b><br>edozelan ere                       | <b>Nolanahi den</b> , ezin nahas nintekeen: [...] garaile izateko behar den autoa eta irudi bortitzez betetako bideokoa, biak ala biak, Montero Sport ziren.    | 23  |
| <b>norberaren nortasun</b><br>norberaren izatea, pertsona | ...txarteletako datuak nire <b>nortasunarekin</b> bat zetozela egiazta zezan.   | 25  |
| <b>oinaze</b><br>mina                                     | <b>Oinaze</b> sarkorra sentitu nuen ezkerreko bekainean.  | 72  |
| <b>oker ibili</b><br>erratatuta ibili                     | Ez <b>zebilen oker</b> , baina arazoak ez ziren berak uste zuen bidetik etorri.   | 13  |
| <b>oldarkortasun</b><br>erasokorra izatea                 | ...behar afektiboa, egoismoa, <b>oldarkortasun</b> sentimendu neurrigabea eta orokorra...   | 79  |
| <b>oldartu</b><br>erasoan bezala zuzendu                  | Baina atzeko autoaren gidaria kanpora irten eta bestean zegoen neska gaztearen kontra <b>oldartu</b> zen, puta eta urdanga garrasika.                           | 19  |
| <b>omenezko</b><br>gorazarrezkoa, oroitzapenezkoa         | Ibaia zeharkatzen duten zubietako bat beste aldean hasten da musikariaren <b>omenezko</b> kalea.  | 16  |
| <b>onetsi</b><br>onartu, ontzat hartu                     | ...orduak ezin espero nezakeen nora eraman behar ninduen goiz hartan <b>onetsitakoak</b> , zein arazotan sartuko ninduen.                                       | 62  |
| <b>oratu</b><br>heldu                                     | Gizonak ileetatik <b>oratu</b> eta lurrera bota zuen; ostikoka hasi zitzaion, gorputz osoan, non kolpatzen zuen kezkatu gabe.                                   | 14  |
| <b>orban</b><br>mantxa                                    | <b>Orban</b> beltzez zipriztindua aldatu barik “egizu lo, maitea, egizu lo” esan nahi didala.   | 7   |





|   |   |     |
|---|---|-----|
| <b>orbel</b><br>hosto lehorren multzoa              | Fakultateko halleko eskailerak arineketan jaitsi eta lasterka zeharkatu nituen aparkalekuaren eta errepedearen arteko lorategi <b>orbelez</b> koloretuak.           | 87  |
| <b>orfidal</b><br>botika, antsietatea baretzeko     | Sofia larrien ingresatu zuten egunekoak ireki nuen. <b>Orfidal</b> gaindosiak jota eraman zuen ospitalera.  | 93  |
| <b>orin</b><br>orezta, peka                         | Nireak ziren beirazko xaflako begi marroiak, eskumako masaileko <b>orin</b> gorrixka, egun hartan egin gabeko bizarra; baina besterenak...                          | 12  |
| <b>orla</b><br>ertz dekoratiboa                     | <b>Orlaz orla</b> joan nintzen, harik eta 1966ko promozioan notarioaren izen-abizenak aurkitu nituen arte.  | 87  |
| <b>ortozik</b><br>oinutsik, oinetako barik          | ...eta une hartaz baliatuta, umea hartuta lasterka irten zen kalera, <b>ortozik</b> , kamisoiak, euripean.  | 102 |
| <b>ostendu</b><br>ezkutatu                          | Harago joan zara, albisteren atzean <b>ostentzen</b> diren gertaeren bila, sentimenduen bila, bizipenen bila.   | 9   |
| <b>otu</b><br>bururatu, okurritu                    | Beste ideia bat <b>otu</b> zitzaidan.   | 17  |
| <b>pairatu</b><br>jasan, sufritu                    | Tratu txarrak <b>pairatu</b> dituen emakume batekin ibiltzen hasi naiz.   | 68  |
| <b>paramentu</b><br>horma baten azala, ornamentua   | Pasilloak jatorrizko apaingarriak zituen sabaian, <b>paramentu</b> bertikaletan eta zoruan.   | 27  |
| <b>paranoidismo</b><br>trastorno delirantea         | ... <b>paranoidismo</b> mota bat da: behin eta berriz pentsatzen du besteak asmo txarrez jokatzeko duela...   | 69  |
| <b>perrail</b><br>baldea, uhoitza                   | ... <b>perrailetan</b> zintzilikatutako loreak hosto txarrez garbitzen ari zen gizon bat.   | 43  |
| <b>plantak egin</b><br>itxurak egin, faltzakeriatan | Ikaragarri haserretu nintzen, banekien-eta <b>plantak egiten zebilela</b> , hark debekatzeko zion lagunekin ibiltzea...   | 96  |
| <b>popatik hartzera</b><br>kaka artera, izorratzera | Eta horrek ez dio graziarik egingo aldizkariko zuzendariari.<br>— <b>Popatik hartzera</b> zuzendaria!   | 75  |
| <b>poño</b><br>poztasuntzua                         | Picasso kaleko andreaken begitartea irudikatu nuen itzalean, <b>poño</b> ezin ahaztuzkoa...   | 115 |
| <b>premia</b><br>urgentzia                          | <b>Premia</b> handiko kontua da.  | 18  |
| <b>purrustada</b><br>protesta, mespretxuzko keinua  | Begiko zauria begiratu zidan neskalagunak eta ulertu ez nuen <b>purrustada</b> bat ezpainen artean marmaraturik.  | 73  |
| <b>sama</b><br>lepoa, iduna                         | ... <b>samatik</b> helduta atera zuen kotxetik, bultzaka jarraitu zuen...   | 107 |
| <b>samin</b><br>tristeia, atsekabezkoa              | ...malko <b>saminak</b> etorri zitzaizkion begietara, dardara egin zion ahotsak.  | 99  |
| <b>sapa</b><br>sargoria, bero itogarria             | ...altxatu nintzen eta aldizkari bat hartu nuen ondoko lankidearen mahaitik. Orriak pasa eta pasa ibili nintzen, zaratsatu. <b>Sapa</b> eramanezina. Eurria kalean. | 128 |
| <b>sarkor</b><br>barnera sartzen dena               | Oinaze <b>sarkorra</b> sentitu nuen ezkerreko bekainean.  | 72  |
| <b>segail</b><br>argala eta erakargarria, lerdena   | ...notarioaren gaztetako argazkiaren ezkerrean zegoen gazte <b>segail</b> baten erretratuari.   | 87  |
| <b>sen</b><br>instintua, berezko zentzua            | Arrakasta ezagutu nahi duen kazetariak <b>senari</b> begira jardun behar du, intuizioari jaramon egin behar dio.  | 43  |
| <b>sigi-saga</b><br>zeharka-meharka, zig-zag eginez | Jendea atzera eta aurrera zebilen aterkien azpian, harlauza apurtuetan sorturiko putzuak saihesteko <b>sigi-saga</b> zorabiagarri batean.                           | 35  |
| <b>suminaldi</b><br>amorrualdia                     | ...“eta ez pentsatuz zer egin behar duzun eta zer ez [...] gizon horren <b>suminaldi</b> bakoitzean, zeren zuk egiten duzuna gorabehera, hirak izan izango dira”.   | 38  |
| <b>supituan</b><br>bat-batean                       | <b>Supituan</b> kolpe gogor bat entzun zen kalean.  | 19  |



|  |   |     |
|--|---|-----|
| <b>susmo</b><br>errezeloa, aierua                        | Leihotik begira nengoela <b>susmo</b> bat izan nuen.  | 18  |
| <b>sutan jarri</b><br>amorrutan jarri, sumindu           | ...senarrak sarri esaten ziola txarto egiten zuela, txarto mozten zuela kipula, eta tomateak, eta kuiatxoak... <b>Sutan jarri</b> nintzen.                              | 95  |
| <b>sutsu</b><br>irmo, gogoz                              | Piccasoko andreak, aldiz, helburua justizia zela defendatu zuen <b>sutsuki</b> , planaren zehaztapenez eta argudioz.  | 52  |
| <b>tapiz</b><br>tapizeria, moketa                        | Barrutik auto ezin ederrago batzuek dei egiten dizute, haien <b>tapiz</b> garbia, haien gurpil plater distiratsuak...   | 25  |
| <b>tentuz</b><br>arretaz, kontuz                         | ...filmeko detaile guztiei <b>tentuz</b> erreparatu beharko niela alegia.   | 34  |
| <b>terapia</b><br>tratamendua sendatzeko                 | ...nahiz eta zaila zen, halako pertsonak oso gutxitan laguntzen dutelako <b>terapia</b> aurrera eroaten, terapiara joaten direnean asmo bakarrarekin joaten direlako... | 79  |
| <b>tupustean</b><br>ezustean, ustekabea                  | <b>Tupustean</b> , kaleko atea zabaldu ahala, gizonezko bi etorri zitzaizkidan gainera, buruak zamarren txanoez estalita.   | 71  |
| <b>turrusta</b><br>txorrotada, ur parrasta               | ...egun euritsuetako geiser zikinak, tupustean prakak goitik behera bustitzen dizkizuten <b>turrusta</b> urbanoak.  | 45  |
| <b>txera</b><br>afektibitatea                            | Jakin zuen txikitatik ezagutu zuela indarkeria eta hark <b>txera</b> kontrajarriak sortzen zizkiola: behar afektiboa, egoismoa...                                       | 79  |
| <b>txilioa</b><br>garrasia                               | Etxeko atea zabaldu eta neskalagunaren <b>txilioa</b> entzuten uste izan nuen.  | 72  |
| <b>txundituta</b><br>harrituta, mira eginda              | <b>Txundituta</b> geratu nintzen.   | 51  |
| <b>ubeldura</b><br>moratoia, beltzunea                   | ...hartutako kolpeak salatuko zituen <b>ubelduraren</b> bat sumatu nahian.  | 12  |
| <b>ukabil</b><br>eskua itxia                             | Mugimenduz beztitzen zituen jardunak: mahaia <b>ukabilez</b> jo, kopeta zimurtu, zerbait begien bistakoa iruditzen zitzaionean besoak eta eskuak luze zabaldu...        | 9   |
| <b>ukatu</b><br>ezeztatu                                 | Zergatik kontatuko zion ezezagun bati ospitalean <b>ukatutakoa</b> ?  | 11  |
| <b>urdanga</b><br>emagaldua, puta                        | — Non gorde duk <b>urdanga</b> hori!  | 72  |
| <b>ustezko</b><br>izan litekeena, presuntoa              | Bistakoa zen <b>ustezko</b> biktima maiteminduta zegoela, eta onartua zuela tratu umiliagarria, bere autoestima zapaldua izatea.  | 65  |
| <b>uxatu</b><br>aienatu, urrunarazi                      | Baina ezin, bihar epaia emango dutela jakiteak artegatu bainau, eta loa <b>uxatu</b> .  | 134 |
| <b>uzkur</b><br>lotsati                                  | ... <b>uzkur</b> portatzen hasi zen, batez ere nobioa edo notario jauna bere aurrean zeudenean.   | 50  |
| <b>we shall overcome</b><br>protesta kantu baten titulua | Bruce Springsteen-en <b>We shall overcome</b> kantua sortu zen bozgorailuetan, kotxea martxan ipini orduko.   | 59  |
| <b>xafila</b><br>plantxa, txapa                          | Hantxe neukan psikologoaren abokatuen kabineteko <b>xafilako</b> abizenetako bat.   | 87  |
| <b>xingola</b><br>zinta                                  | Ate nagusiaren aldean, jende ilarak antolatzeke <b>xingola</b> tinkatuen ondoan, bi atezain zeuden berbetan.  | 34  |
| <b>xukadera</b><br>eskuzapia, toalla                     | <b>Xukadera</b> bat zeraman ilearen inguruan.   | 41  |
| <b>zafraldi</b><br>jipoia, astindua ( <i>paliza</i> )    | — A, <b>zafraldi</b> hura! Pasada ederra eman zion!   | 19  |
| <b>zantzu</b><br>seinalea, aztarna                       | Dekadentziaren <b>zantzuak</b> , pentsatu nuen, hiltzera doan mundu baten isla.   | 82  |
| <b>zikiratu</b><br>irendu, sexu organoak kendu           | Edertasunarekin, ederraren iraunkortasunarekin lotzen zen orduan <b>zikiratze</b> mingarria...  | 44  |



|   |   |     |
|---|---|-----|
| <b>zimiko</b><br>atximurra, txatxamarka       | Baina medikuaren ahotsak <b>zimiko</b> bat eraginda edo, halako batean emakumeak burua altxatu eta artez begiratu zion.                                       | 11  |
| <b>zipriztin</b><br>txipliztada               | Andaren ondoko mahai zurian kristal ñimiñoenez beteriko azpila, odol <b>zipriztinez</b> gorrituriko zilar kolorea.  | 7   |
| <b>zirimolatsu</b><br>zurrunbilotsua, nahasia | ...nire nahasmendutik askatzeko, pentsamendu <b>zirimolatsu</b> hark, kontrolik gabeko haizeak are nahasiago utzi ninduelakoan.                               | 44  |
| <b>zola</b><br>zorua, behea                   | Bart pinu basoa aukeratu dute lo egiteko, pentsatu nuen tantek kaleko <b>zolaren</b> aurka sortutako hotsa ohetik entzutean.                                  | 39  |
| <b>zoli</b><br>ozena, indartsua               | ...seme kantaria irentzeko komenentzia iradoki ziotenean, orduko ahots altu eta <b>zolia</b> betiko gorde zezan, aitak izan ei zuen haserreaz oroitu nintzen. | 44  |
| <b>zotín</b><br>negar-hipaka, espasmoka       | Ezin izan zuen gehiago, hondoa jo zuen, dardaraz eta <b>zotinka</b> .   | 113 |
| <b>zupatu</b><br>xurgatu, zurrupatu           | Klaska bitxi bat atera zen fruitua ahoan sartzean, kraskatu aurretik <b>zupatu</b> egingo balitu bezala.  | 31  |
| <b>zuritu</b><br>azal kendu                   | Eta halako batean, gaztaina <b>zuritu</b> berri bat eskainiz, galdetu zidan:<br>— Zergatik Sofia?   | 31  |
| <b>zurrut</b><br>tragoskada, hurrupa          | Adi entzun zuen, berriketa eten gabe, ardo gorri nafarrari <b>zurrut</b> txikiak eginez.  | 82  |